

Karkara

karkara.eus

Orioko eta Aiako aldizkaria · 2015eko irailaren 25a · 365. zenbakia. 26. urtea



Gertu da ludoteka

Ikastetxe orduetatik kanpo hezitzaileen eskuetan jarraitu ahal izango dute, aurrentzean, Orioko haurrek.

11

Akuilua hartuta
Iona Rekarte

12

Elkarrizketa
Joseba Brit

28

Moila bazterretik
Garbiñe Manterola

32

Udalaren txokoa
Euskaltegia

URTEAN **36** EURO

18 DOZENA ARRAUTZ

12 KILO PATATA

950 GRAMO BIXIGU

40 LITRO ESNE

KARKARAKO HARPIDETZA

HARPIDETU

KARKARA.EUS/HARPIDETZA

KARKARA@KARKARA.COM

943 631027

Izena:

Abizenak:

Nortasun agiria:

Helbidea:

Telefonoa:

Eposta:

Kontu zenbakia:

**Bete formularioa
eta errediakziora ekarri
edo karkara.eus/harpidetza
helbideko formularioa bete**

365

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

EditoreaKARKARA taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Idurre Telleria

Ale honetako**kolaboratzaileak**Ander Atorrasagasti
Arturo Elozegi,
Rosi Lazkano
Garbiñe Manterola,
Eneritz Odriozola,
Iona Rekarte**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaileakRodolfo Jimenez (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzuz-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
tako berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jauriaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Hernioko tontorreko hainbat gurutze. ATARIA

HASI BERTSOTAN

ROSILAZKANO (DOINUA: AIZAK HI MUTIL MAINONTZI)

Hiru bertso xume

1Bat, bi, hiru bertso xume
datorrena(re)n begirune.
Iraila da, aipa nitzake
Hernio eta Gazume;
baina, giza krisi gune,
hantxe gizon eta ume,
kabituz ezina azaldu nahian
ai zenbat hutsune!**2**Abarka sokak lotzea
gailurrera igotzea.
Ohitura za(ha)rra eta beharra,
goiza-iluntzea.
Hesi itxien atzea,
duintasuna galtzea
zer desberdina tontor bakoitzak
duen gurutzea.**3**Agintarien fedea,
ez denez denon legea.
Eskuzabalen famakoa zen,
euskaldun jendea.
Eskubidea, ordea,
bada ganbaran gordea.
Ondorioan geldituko da,
Euskadi berdea.

Publizitatea kontratatzeko:

KARKARA**688 859 682 (Idurre)****publizitatea@karkara.com****karkara.eus**

Balearen ibilaldia, Oriotik barrena

Irailaren 26an, larunbata, Donostia eta Zarautz lotuko ditu *Kostalde baleada* izeneko ibilaldiak. Ekimena Zarauzko *Badok 13* elkarteak antolatua da aurtengo edizioan. Ibilaldiaren antolaketarako laguntzaileen artean daude Orioko Arraun Elkarte eta Talaimendi mendizaleen elkarte ere. Ibiltariak, Donostiako moilatik abiatu eta Igeldotik barrena etorrita, Orion atsedendia izango dute eguerdi aldean, Zarautzen proba bukatu aurretik. Orion egingo du, hortaz, geldialdia *Kostaldeko baleadak*.

Kukuarri menditik etorriko dira Oriora. Mendi tontorrean daudela, freskagarriak eta fruta jango dute parte hartzaileek. Eta, ondoren, Orioko ikastolako pergolako hamaiketako izango dute, Zarautzera joateko indarrak hartzeko.

Euskal kostaldeko ibilaldi hau Iparaldeko talde baten ekimenez sortu zen orain dela urte batzuk eta aurren, antolaketaren ardura zarautzarrek hartuta, Gipuzkoako kostaldearen zati bat urratuko du: Donostiatik Zarautzera bitartekoa.

Tabernariekin asaldatuta

Azken hilabeteetan batean eta bestean kexa ugari irakurri, entzun edota ikusi ditugu tabernariak dituzten prezioen inguruan. Goazen adibide batzuk jarzera.

Merkatu librearen gizartean bizi gara. Taberna bakoitzak bere prezioak jartzeko eskubidea du, eta, ondorioz, bezeroek aukera dute bertara itzultzeko ala gehiago ez joateko.

Zerbait hartu aurretik ez daukagu ohiturarik produktuaren/zerbitzuaren prezioa galdetzeko eta gero sorpresak izaten dira.

Gauzak horrela, argazkian dituzue uda honetako zenbait adibide. Batzuk kafearen izotza kobratzen dute, besteek haragia gehiago egitea... Eta horrela ez dakit zenbat gauza gehiago. Batzue-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARA ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARA esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

tan gehiegikeriak izan daitezke, beste batzuetan ez. Ikuspuntuaren arabera, koa da hori.

Baina niri kontu guzti honetan zerak eman dit atentzia. Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako hainbat jate-txe eta tabernetako ordainagiriak direla gehienak eta guztietan hizkuntza eskubideak urratzen direla. FACUAkoek eta erabiltzaile gehienek prezioari baino ez diote begiratu. Baina zein hizkuntzatan ematen digute kontua? Gaztelera hutsean. Oraindik ere gutxi dira zerbitzu guztia euskaraz emateko gai direnak, edo, gutxienez, bitara.

Hala, berriz ere hizkuntza bigarren plano batean geratu da. Taberna bat edo bestea aukeratzekoan geratzen den bezalaxe.. ■ **Iker Gurrutxaga.**

Aita Lertxundin, ez oinez, ez autoan

Aita Lertxundi kalean semaforo guztiak anbar-kolorean egon dira ia uda osoan.

Oinezkoek Aita Lertxundiren alde batetik bestera pasatzeko komeria galantak izan genituen, autoak abiadura handian eta gelditu gabe pasatzen baitziren. Gu, zebrabidean, itxaron eta itxaron, norbait gelditzeko zain.

Orain, aldatu dituzte semaforoen kolorea eta oinezkoek lehen baina

errazago gurutzatu dezakegu semaforoa.

Kotxeek, ordea, orain zailtasunak dauzkate. Ibai ondotik bazoaz eta Aita Lertxundi kalera sartu nahi baduzu, Zarauzko norantzan, denbora asko itxaron behar duzu. Izan ere, aldaparen pareko eta autobus geltokiaren ondoko bi semaforoak ez dira aldi berean berde edo gorri jartzen. Orduan, geltoki pareko semaforoa gorrian dagoenean, atzekoa berdean egoten da eta kotxeak pilatu egiten dira, Ibai ondotik sartzeko konplikatu.

Arazo honekin amaitzea eskatzen dut, lehen oinezkoentzat zelako traba eta orain autoan goazenean ditugulako oztopoak. ■ **Oriotarra.**

Euskal dantzen ikastaroa

Talai Mendik, urtero bezala, euskal dantza ikastaroa antolatu du. Fandangoa, arin-arina, mutxikoak, larrain dantza eta beste hainbat plaza dantza ikasi nahi badituzue, Talai Mendik antolatutako ikastaroan duzue horretarako aukera.

18 urtetik gorako herritar guztientzat daude ateak zabalik. Adin nagusiko edonork du, beraz, euskal dantza ikasteko aukera. Irailaren 30ean hasiko dira eskolak; eta, ordutik, asteazkenero bilduko dira iluntzeko 21:00etan Kosta tailerrean. ■ **Talai Mendiko dantza taldea**

Mandalararen ikasturte berrirako gonbita

9 urte dira abentura hau hasi genuenetik, gure desioa herritarrei ongizaterako tresnak helaraztea, nahiz eta egia den, gero eta jende gehiago etortzen dela beste herri eta hirietatik.

Ilusioz beteta, beste ikasturte bati hasiera ematera goaz, urtero bezala, ikasturte berri bakoitza, abentura gozagarria bihurtzen baita!

Gure artetik zenbat jende pasa den zehazki esatea zaila da, baina, gogoeta egiten jardun naiz, apunteak errepara-

tu eta ... 2000 pertsonatik gora... hau da hau sorpresa, eta hori, *por amor al arte* lan egiten dugula. Badira, taldekideak, profesionalki hontara dedikatzen direnak, baina gehienak ez.

Egia da lan ordu asko eskaintzen ditugula Mandalarako 10 taldekideek, baina jendearen erantzunak eta esker-tzak, ongo pagatzen ditu gure lan ordu eta nekeak.

Aurten ere, tailer erregularrekin gatzoz: Yoga, Chikung CFQ, Jubilatuetzako Yoga, Meditazioa, Mandalak, Astrología, Intuizioa eta Energia, Tarota... Asteburuetako ikastaroak ere baditugu, abendura arte programa itxita dugu.... Tope tope hasi dugu aurtengoa, eta sorpresa oso atseginekin!

Gure nahia oriotarrak osasuntsu eta pozik egotea da... hori izan da gure oinarria hasiera- hasieratik, hori da bihotzez eskaintzen duguna....beraz, animo gurerara gerturatu nahi duzuen gurtziei! Ateak zabalik daukazue! Gure

Akatsak zuzentzen

Orioko turismoari buruzko erreportajea plazaratu zuen KARKARAK abuztuko zenbakian. Huts bat egin genuen testuan. Irakurle prestu bati esker izan dugu hutsaren berri, hark esanda. Herriko turismoaren jatorria azaltzen hasita, bi hotel aipatu genituen gerra ondorengo Orio hartan: Esnal eta Toki Alai. Baina bi ez, hiru aipatu behar genituen, eta hirugarrena jartzea ahaztu guri: Hotel-Restaurante Salsamendi, Maria Teresa Peñak eraman zuen jatetxe famatu haren martxa. Jatetxe hark ematen zituen banketeak herriko ospakizun askotan, ezkontza eta bestelakoetan, eta jende asko erakartzen zuen kanpotik ere. Aipamen hau eginda, egindako hutsa konponduta geratu delakoan.

taldeak ez baitu oinarri ideologikorik, ez erlijiosorik.. Denak ongi etorriak zarete, denen artean egiten baitugu Mandalara.

Gure webgunean kontsula dezakezue programazioa edo facebookean topa gaitzakezue. ■ **Amaia Gozategi.**

Mandalara taldeko koordinatzailea

Akatsak zuzentzen

KARKARAREN 359. zenbakitik hasita, bost ataleko erreportajea argitaratu genuen Orioko Arraunketa elkartearen inguruan. Erreportaje horietan argitaratutako argazkietako bik ez zuten egile izenik, eta Ramirorenak zirela esan beharra daukagu. Argazki horiek 1992ko Kortarena eta 1970 urtean zubitik aterakoak dira. Hortaz, barkamena eskatu eta egindako lana aitortu nahi diogu Ramirori.

ZORIOTXARRAK!

Birziklatze-tasaren kartelik ez balkoian

2011an %27 zen birziklapen tasa Orion: 2012an, %31 eta 2013 urtea %36 tasarekin amaitu zen. Hiru alderdiek adostu zuten 2015 urte hasieran %65 birziklapen tasa lortu behar zutela.

Udaletxeko balkoian birziklapen tasa zenbatekoa zen zioen kartela jartzen zuten. Hilabetero-hilabetero aldatzen zuten, herriak zenbat birziklatzen zen jakin zezan.

Azkenaldian, ordea, ez dago kartelik balkoian. Herritarrek ezin dute berehalakoan jakin zenbatekoa den tasa.

Kartela jartzearena oso modu erraza eta eraginkorra zen oinarritzko informazioa era sinplean jasotzeko. Udaletxeko balkoian bi zenbaki jarrita herritarrek bazekiten ea hiru alderdiek adostutako zifratik gertu ala urrun zeuden.

Honenbestez, ez litzateke ideia txarra izango berriz ere udaletxeko balkoian birziklatze-tasa jartzea.

JAIOTAKOAK

- Hiba Laassiri Hissou, Orion, irailaren 18an.
- Enara Arrillaga Oteiza, Orion, irailaren 4an.
- Nurile Dorronsoro Agirre, Orion, irailaren 4an.
- Laida Azkue Indo, Orion, irailaren 2an.
- Paule Garro Oliden, Orion, abuztuaren 28an.

EZKONDUTAKOAK

- Julian-David Ros Garriz eta Amaia Egibar Etxeberria, Orion, irailaren 19an.
- Unai Illarramendi Etxeberria eta Karen Larrañaga Lopez, Orion, abuztuaren 31n.
- Pablo Irazusta Olaizola eta Ana Belen Manzano Miranda, Orion, abuztuaren 28an.

HILDAKOAK

- Jose Miguel Atxega Seguro. Orio, irailak 19. 67 urte.
- Ines Manzisidor Aizpurua. Orio, irailak 16. 92 urte.
- Jose Luis Huegun Agirre. Aia, irailak 8. 82 urte.
- Luis Illarramendi Irure. Aia, irailak 2. 73 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

IRAILEKO KRONIKA



Jon Salsamendi airean, arraunlariek altxata, Kontxa irabazi ostean. EITB



Mahatsa bildu eta txakolina egin ondoren, festa egiten da Aian. KARKARA



Piraten danborrada Gazte Festetan. KARKARA

Paladaka hasi, festan amaitu

“Maleta desegin eta motxila prestatzen dute txikienek. Lanerako behar dutena listo uzten dute helduek”

A buztuak alde egin eta iraila hasten denean, guztiek elkartu nahi dute... Ikasgelan? Edo lantokian? Maleta desegin eta ikastetxerako motxila prestatzen dute txikienek. Lanerako behar dutena listo uzten dute helduagoek.

Udan oporretarako astirik izaten ez dutenak, maletarik egin ezin dutenak, arraunlariak izaten dira. Eta horiek iraila hastean Kontxako badian elkartu nahi dute.

Iraila izango zen, hitzak urtaro batetik bestera, bidaltzen genituen, izen gabeko txorien antzera... Zerua ilun, soineko beltz, zu hain eder. Nik zerotik hasi nahi nuen... Hutsetik hasi nahiko lukete gure arraunlariek, berriz ere estatxa heldu eta Kontxako badia konkistatzeko, Hondoratutako ametsa izan baita aurtengoan Kontxako bandera, Orion astindu izan ezin duguna.

Iraila da, maitia, mahats usaina da airean, hostozko tunel bat daukagu aurrean. Oporren bueltan lanez lepo izaten dira mahastizainak. Dagoeneko jasota izango dira aurtengo uztako lehen mahats-mordoak. Kiloak eta kiloak zapaldu eta txakolin upategiak listo izango dira hemendik lau hilabetera txotx irekierarako.

Zapaldu gabeko mahatsak urte berriari hasiera emateko jango ditugu, ohiturak agindu bezala. Baina, tira, beti izango du tokia mahaian txalokin botilak.

Nik ez dut besterik jakin nahi, ea urte hartako iraila bezalakorik helduko ote den berriro. Eta iritsi da 2008koa bezalako iraila. Berriz heldu diete gazteek bost urtez beren egutegian gorritz jarritako data izan zen irailaren azken asteburuko Gazte Festei. Berriro, bi urteko geldialdiaren ondoren, Gazte Festak berpiztuko dira.

KARKARIÑOAK

Zer iruditzen zaizu Gazte Festak berriz egitea?



“Aukera polita da herriko kuadrilak lokaletik irteteko”

Oso ondo iruditzen zait Gazte Festak berriz egitea. Orion, beste herri askotan bezala, gaur egun gazteak lokaletan sartuta egoten dira beti. Gazte Festak aukera polita dira herriko koadrila desberdinak handik atera eta elkarrekin gauzak egiteko.

Gainera, nahiz eta bertan egon ez naizen, esan didate antolakuntzan jende dezente aritu dela, eta elkarlanean antolatu dutela festa. Hori pozgarria eta positiboa dela iruditzen zait, batez ere lehen aritu ez ziren gazte asko daudelako. Jende berria sartzea beti da ona.

Aupa Gazte Festak!

Agustin Gozategi

Langilea



“Bileratan adin eta ideia aniztasuna egon da”

Oso gustura nago Gazte festak berriz egingo direlako. Urteetan zehar konturatu gara Orioko gazteok ez garela asko komunikatzen gure artean.

Horregatik, herriko adin ezberdineko koadrilak biltzeko aukera ona iruditzen zait. Bai bileretan eta baita festan ere. Eta nola ez elkarlana sustatzeko modua.

Gainera nahiz eta udalak antolatuta festetan bakoitzak bere iritzia eman dezakeen denon gustura eginaz, gazte festak zerbait berezia dira. Ezberdina.

Bestalde, bileretan bildu den adin eta ideia aniztasuna, pertsonalki aberasgarria izan da niretzat.

Intza Unanue

Ikaslea



“Gazteek antolakuntzan egon behar dute”

Interessantea, eginbeharrekoa eta sekula moztu behar ez zen zerbait iruditzen zait. Gazteak antolakuntzan egon behar dutela uste du, Gazte Festak antolatzeak ekarri dezakeelako herriko gainontzeko festak egiten direnean ere parte hartzea. Pena eman zidan amaitzeak, bide ona hartu baitzuen, gazteek parte hartzen zuten. Hortaz, tristura sortu zidan bukatzeak, gazteek festetarako gogorik ez zutela ematen zuten, norberak antolatutako festetan ere ez bazuten parte hartzen...

Orain berriz hasteak poza ematen dit, jendeak ilusioa duela ikusten baitut. Festak egiteko eta lanerako gogoia ikusten dut.

Imanol Urkizu

Kultur Etxeko arduraduna



Seguros Bilbao
Orioko ordezkaria

Santi Barranco
Telf.: 618581398
Artiago, 2 - 2ª planta
20010 Ormaiztegui (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

“Festaz gain, aldarrikapenari eta parte hartze aktibo parekideari garrantzia handia ematen diogu”

Gazte Festetako Asanblada

Bi urteko etenaldiaren ostean, indarrez datoz berriz ere: irailaren 25ean, 26an eta 27an egingo dira Orioko 6. Gazte Festak. Gazte talde bat elkartu eta bost urtetan oso emankorra izan zen festa bat berreskuratu dute.

MIRIAM GARCIA

Gaztetxe bat aldarrikatzeko helburuarekin egin ziren lehen aldiz Gazte Festak Orion, 2008an. Xumeki hasi zen festa, bost urtetan egutegian gorritz margotutako data bihurtu zen. 2012an egin ziren azkenak eta orain, bi urteko geldialdiaren ondoren, Gazte Festak berpiztu egin dira.

Nola sortuzen Gazte Festak berriz antolatzeko ideia?

Koadrila ezberdinetako hainbat pertsona berriketan aritu ginen festetan, Gazte Festek jarraipenik ez izatea pena bat iruditzen zitzaigula. Hitz egitean, jendeak gogoia bazuela nabaritzen genuen, eta berriz ere, zerbait antolatzeko ideia bururatu zitzaigun.

Whatsapp bidez mezu bat zabaldu eta bilera bat antolatu genuen uztailean. Geroztik, asteazkenero bildu gara guztia antolatzeko. Aurreko urteetan Gazte Festak antolatu izan dituztenez gain, jende berri asko dago taldean.

Aurreko urteetako filosofia berarekin ari zarete, ezta?

Bai, egitaraua antzekoa da eta oinarrian dauden ideiak ere berak dira. Hasieratik argi genuen, beste urteetan bezala, festak gazteengandik eta herriarentzat, erabat autogestio-natuak izango zirela.

Festaz gain, aldarrikapenari eta parte-hartze aktibo parekideari garrantzia handia ematen diogu.

Paella lehiaketa Gazte Festetako ikurretako bat da dagoneko.

Bai, eta horren esentzia mantendu nahi izan dugu. Beti bezala, eskuz serigrafiatutako kamisetak banatuko ditugu paella lehiaketan parte hartuko dutenen artean. Aurten laranja ko-

lorekoak izango dira, azken urteetan euskal herriko hainbat mugimenduk adierazpen askatasunaren eta desobedientzia zibilaren alde egiteko hartu duten kolorea baita.

11:00etatik 11:30era banatuko ditugu kamisetak eta berrikuntza bat izango du lehiaketak. Bazkaria prestatzen hasi baino lehen jolasak egin beharko dituzte parte-hartzaileek, paella egiteko osagaiak lortzeko.

Baltsa karrera ere aldiro errepikatzen da.

Bai, aurten Ortzaitatik aterako da eta gaztetxean amaituko da baltsa karrera, igande arratsaldean. Beste hainbat tokitan egin duten bezala, aurten plastikozko poltsa puzgarriak jarri ditu asanbladak baltsak egiteko. Zarautzen eta Donostian ere horrela egiten dute eta ideia gurera ekartzea erabaki genuen, berrerabilgarriak direlako.

Igandeko ekintzak gaztetxera eramantuz.

Bai, gaztetxea aldarrikatzeko sortu ziren Gazte Festak, eta gaztetxeari presentzia eman nahi diogu. Igande goizean gaztetxera *ginkana* bat egingo dugu. Familian, haur eta helduek ere gazte festetan parte-hartzea da helburua.

Baltsa karrera ere han bukatuko da eta igandeko kontzertu akustikoa Etxeluzen izango da.

Jarraipena emateko intentziorik ba al duzue?

Bai, noski. Talde iraunkorra sortzen saiatuko gara, datozen urteetan Gazte Festek jarraipen bat izan dezaten. Espero dugu herriko gazteak mugitzen hastea eta hau hasiera bako-rik izatea. Talde irekia izango da eta herriko gazteei bileretara azaltzera animatu nahi diegu.



Kukutza eta Kortxoenea gaztetxeekin elkartzasuna adierazi nahi du Gazte Festetako asanbladak. EGOITZ DORRONSORO

“Espero dugu herriko gazteak mugitzen hastea eta hau Gazte Festen hasiera bakarrik izatea.”

EGITARAUA

Irailak 25, ostirala:

19:00 - Txosnen irekiera

19:30 - Kixkurneren igoera eta unblenble kolektiboa

Jarraian: Trikipoteoa

23:00 - The Nephews eta Triki Ta Ke taldeen kontzertua

Irailak 26, larunbata

11:00-11:30 - Kamiseta banaketa

11:30 - Jolasak

11:30 - Paella lehiaketa

Txartelak Kalakarin, Errustan eta Kolon Txikin

14:00 - Bazkaria

Bazkalostean: Elektrotxufla elektrotzaranga

23:00 - Cohen eta Eskean Kristo taldeen kontzertua

Ondoren: Musika dantzagarria Kepa eta Arrutirekin

Txosnak itxitakoan: aulki jokoa

Irailak 27, igandea

7:00 - Diana turuteroa

Bizilagunen borondatea eskertuko da

11:30 - Umeentzako jolasak gaztetxean

16:30 - Baltsa karrera Ortzaitatik gaztetxera

19:00 - Entre Kanyes taldearen kontzertua gaztetxean

Ondoren: itxierako kalejira eta Kixkurneren jaitziera

Neskak txanpon berean



Arturo Eloseggi

Naixo Eneritz. Lehengoan Hondarribian ikusi zintudan, Jaizkibel konpainia mistoari animoak ematen. Ez da gutxiagorako, animoa behar baita plastiko beltzen eta oihuen artean festa egiteko! Baina plastikoak jartzen dituztenen kopeta iluna ikusita, galdera datorkit: zer behar du batek herrikideei festan parte hartzea galarazteko? Nola gorroto daiteke alardean atera besterik nahi ez duena?

Hilabete lehenago, Leitzako festetan, neskak atera ziren lehen aldiz ezpata-dantzan. Hura kontrastea! Herri oso bat txaloka, jendea hunkituta. Neskena ez zen, noski, denen gustukoa izan. Bakarren batek aitortu zidan nahiago lukeela neskarik aterako ez balitz, *baina atera nahi badute, zein naiz ni hori galarazteko*. Hondarribikoa ez errepikatu nahi izateak ere izanzen zuen zerikusia horretan, noski.

“Hilabete lehenago, Leitzako festetan, neskak atera ziren lehen aldiz ezpatadantzan. Hura kontrastea!”

Horrek zer pentsatua eman dit, zergatik herri batean auzia horrela katramilatu eta bestean ez? Zergatik ateratzen dira emakumeak Zubietako ttuntturroetan baina ez Iturengoetan? Nago ez dela alderik herrien artean, gehienez ere, astakirtenen bat hasiko zen batean espantuka, eta dena mikaztuko zuen. Dena mikazten hasteko, noski, astakirten batekin aski izanzen da, baina hogeitaz gaia zornatzen uzteko, horretarako politikariak behar dira.

Kontuak kontu, berdintasuna oraindik urrun dugu. Gainera, nago itxuraz lortu den lekuetan ere, sakoneko desberdintasunak mantentzen direla. Ez al da horrela gertatzen emakumeen kirolarekin?



Eneritz Odriozola

Nai, hala da, Arturo. Hondarribian alardea ikusten izan ginen. Jaizkibelekoen plastiko beltzezko bideari bizkarra ematen. Txaloak guk, desfilatzen ari zirenek esker oneko aurpegiak guri. Geroztik, berriz, Kontxako arranplan izan gara. Gure neskei estropada ondoreneko ongi etorria egiten. Txaloak guk, haiek esker oneko aurpegiak guri.

Esker oneko aurpegiak ikusita, Hondarribian zein Donostian, begiak busti zitzaizkidan. Emozioa eta tristura sentitu nituen aldi berean. Emozioa, itxaropena badudalako noizbait berdintasuna, edo hari hurbiltzen zaion zer bait, ezagutuko dudala. Tristura, oraindik ere bide luzea ikusten dudalako.

“Hondarribiako neska gazte kantinerableak eta Orioko neska arraunlariak: txanpon beraren bi alde.”

Jaizkibel konpainian izaba Arantxa ateratzen da. Aurtengoa hemeretzigarrena izan du. Eta etsipen tonuz esaten zidan, berak desfilatzen duen bitartean ikasle gaztetxoek mespretxu aurpegiak ikusi behar izaten dituela. Ikasle neskak plastiko beltzen atzean; izaba indartsu desfilatzen.

Joan den igandean, trainerua arranplan gora bizkarrean zekartenak, ikasleak izan nituen. Ikasle neskak. Neska gazteak. Animatzaile gutxi bildu ginen, baina indarra ikusi nien.

Hondarribiko neska gazte *kantinerableak* eta Orioko neska arraunlariak: txanpon beraren bi alde.

Bidea luzea izango da, txanpon berean bi aldeek jarraitzen duten bitartean. Bitartean, emozioa, itxaropena eta indarrarekin geratzen naiz: izaba desfilatzen eta ikasleak trainerua bizkarrean. Eutsi gogor!



Ahal da Ezin da



Iona Rekarte

Orain hor dago idatzita lehen aipatu ere egiten ez zena, ama eta haur jaioberriak naturalki elikatze eskubideaz hitz egiten duen testua.

Nau jaso nuen atzo foro batean: *Eskubidea bihurtu da Euskadiko leku publikoetan bularra ematea*, eta segituan sua piztu zen foro-kideen artean. Baziren pozik zeudenak, behingoz, osasun arloko legedian argi eta garbi adierazten delako eskubide hau. Baziren ere oso haserre zirenak, mahai gainean eskubidea izan daitekeen ala ez eztabaidatze hutsa onartezina iruditzen zaielako.

Nik gustura hartu nuen albistea, badirudi gaur egun ez dela beharrezkoa hori erabakitzea, eta era berean, orain hor dago idatzita lehen aipatu ere egiten ez zena, ama eta haur jaioberriak naturalki elikatze eskubideaz hitz egiten duen testua, gaur egungo gizarteak hortaz duen ikuspegia eta nahia azaltzen dituena. Orain, ordea, ez dakit leku publiko guztietan *bularra eman daiteke* kartelak jarriko dituzten, edo *ezin da bularra ematen dagoen emakumea molestatu edo iraindu* kartela –debekuak izaten direlako normalean jartzen diren abisuak–. Beharko ote dira? Harritzen nau adibidez, bazter guztietan *ezin da erre* kartelak ikustea. Hegazkinetan, autobus eta trenetan, eskoletan, udaletxetan, milaka eta milaka abisu: *ez erre!* Beharrezkoak al dira gaur egun?

Pertsonok, batzuetan denbora behar dugu aldaketak barneratzeko, batez ere ez badira gure gustukoak eta agian horregatik daude hainbeste? Agian kasu egiten ez duten bihurri asko darraitelako jartzen dira, baina hauek dira hain zuzen kasu egiten ez dutenak! Zertarako jarri orduan? Eta aitortu beharrean naiz, nik ere, batzuetan horixe egiten dudala, kasurik ez kartelari. Trenean argi eta garbi jartzen du ezin dela jan. Ni gose naizenean ordea, munstro bat bihur naiteke, haserre eta ondoeza pizten zait; beraz, kasu zipitzik ez diot egiten debekuari eta lasai asko jaten dut. Nori egin diezaioket kalte trenean sagar bat janda? Ez al litzake hobe izango, *mesedez tren hau garbia mantentzen saiatu* kartela, *ezin da jan* baino? Eta treneko pika-pikak zerbait esaten baldin badit, nire ardura da.



Eli Manterola

Udazken kolorez

Urtarrilerako asmo berriak izaten dituztenen modura, nik irailean izaten dut horretarako garaia, ikasturte berriekin batera. Apuntatuko al naiz frantseseko klaseetara? Eta pilatesen? Eta igeri egitera joango banintz kiroldegira? Behar besteko aurreikuspenez prestatuko al ditut klaseak? Epearen barruan entregatuko al dut esku artean dudana proiektua?

Irailak berriro ere despistatuta harapatu nau aurtengoan. Sasoi berriari heldu nahi baina udara ahalik eta gehien luzatu nahi izaten dut, eguzki printza bat ikusi orduko tartetxo bat hartu eta hondartzara joan bainatzera, datorren udaberrira arteko azken bainua noiz hartuko. Eguraldi ona dugula oraindik eta lanetik ateratakoan Kukuarrira joan-etorria egitea ere ez da plan txarra. Eguzki gozoa indarra galtzen ari dela ongi neurtu gabe, komeni baino arropa gutxiago jantzi eta bada-tor lehenengo katarroa. Eta uste gabe iritsi da bandera horia balkoitik kendu eta armairuan gordetzeko garaia ere. Pasa da Kontxa eta amaitu da liga. Lan ona aurtengoan ere, nahiz eta gehiagoren gosez egon asko. Batzuk lanera itzuli garen honetan besteak deskantsu hartzera, edo bulegoko lanetara. Herriaren bereizgarri dugu horia, ezin uka. Eta zurrumurruak bolo-bolo dabilzan honetan, prentsa horiak ere bete-betean harapatu gaitu. Horia den edozerk balio al du, baina?



“Bi lanak ditut gustuko, eta hori da betetzen nauena”

Joseba Brit

Ingeniari mekanikoa eta musikaria

Soinu bandek filmetan duten garrantzia berbera du musikak Joseba Briten bizitzan. Musika du bidelagun fidelena eta musika entzunez bidaiatzea gustatzen zaio. Soinu bandak egiten ditu AEBn, handik mundu osora bidaia dezaten. Azken lanak Donostiara egin du bidaia, Zinemaldian estreinatuko baita.

TESTUA: OLATZ ARTOLA ARGAZKIAK: JOSEBA BRIT

Zaila egin zitzaion ozeanoa zeharkatzea, bizitokiz aldatzea, baina ez da damutzen. Gustura dago Estatu Batuetan ofizioa eta afizioa uztartuz. Biak ditu ogibide.

Noiz eta nolatan Estatu Batuak?

Edinburgon bizi ostean beti gelditu zitzaidan atzerrian bizitzeko gogo. Gero neska estatubatuar bat ezagutu nuen, berarekin ezkondu nintzen eta Donostiara joan ginen bizitzera. Ondoren, Suediara joan ordez AEBra etortzea erabaki genuen.

Erabaki zaila izan al zen?

Oso. Ez zen batere erraza izan familia maitea, gertuko lagunak, gustuko lana eta talentuzko musika taldea uztea. Egin beharra nuen, bai edo bai, eta hizketaldi serio askoren ostean hartu nuen erabakia. Orain pozik nago erabaki hura hartu nuelako.

Hemen bezain zaila al dago han, lana bilatzeko?

Portlandeko langabezia %4.4an dago. Enpresa asko daude eta hiria azkar ari da hazten. Egunero lanpostu berriak irekitzen diren arren, lan eskaintza ere handia da, jende espezializatu asko ari baita etortzen hirira.

Zuk zailtasunik izan al zenuen?

Egia esan oso erraza izan zen. Hona etorritakoan dokumental bati soinu banda konposatzen bukatzen nengibilen, baina behin LinkedIn izeneko orrian curriculum jarri eta egun bakarrera jaso nuen deia. Makina-erremintan esperientzia izatea ez da oso ohikoa hemen inguruan. Makina erremintak diseinatzen dituen enpresa batean nabil lanean, ingeniaritza mekanikoa deituriko departamentuko burua naiz.

Baina ingeniari lanak musikarekin uztartzen dituzu, ezta?

Bolada batzuetan oso lanpetuta egoten naiz, baina biak ditut gustuko eta hori da betetzen nauena! Egun batzuetan goizeko 6:00etan jaiki, igerilekuan igeri egiten dudanaren itxura pixka bat egin, 7:30ean lanera sartu, 17:30ean atera



ELKARRIZKETA



ELKARRIZKETA

eta gauerdira arte egoten naiz konposatzen. Hemengo lagunek horrela ibiltzeak merezi ote duen galdetu izan didate, baina ni orduan sentitzen naiz bizien.

Zaila, erraza... nolakoa egiten zaizu bi diziplinak uztartzea?

Denbora aldetik nahiko zaila da. Ingeniaritzako lanerako beti saiatzen naiz kurtso bat edo bi egiten urtean, eta Berklee unibertsitatean film musika konposaketako klaseak hartzen nabil iluntzetan, bi urtez. Batzuetan agortuta sentitzen naiz, emaztea ezin izaten dut ikusi... Baina oraintxe bertan ezin dut bietako bat aukeratu.

Hango lan-ohiturak eta hemengoak ezberdinak al dira?

Oso. Hemen jendea askoz gehiago inplikutzen da lanean; azken finean enpresak ordaintzen baititu bajak, pentsioak, osasun zerbitzuak eta abar. Ohikoa da goizean emaila ireki eta bart gauean baten batek mezuren bat edo bi bidali dizkizula ikustea. Politikoki askoz zuzenagoa da dena, askoz ere arau gehiago daude.

Nolatan hasi zinen soinu bandak egiten? Aukera hori noiz eta nola suertatu zitzaizun?

Lagun baten laguna film zuzendaritza ikasten ari zen, eta aurkeztu egin zidan. Nire kontzertu bat ikustera etorri zen eta handik pare bat urtetara film labur bati musika jartzeko eskatu zidan. Orduz geroztik lan batzuk egin ditugu elkarrekin eta, batera egin dugun azken lana Zinemaldian aurkeztuko da: *Un Otoño Sin Berlin*.

Zinemaldian egoteak berezi izan behar du...

Soinu bandak egiten hasi nintzenean ez nuen gehiegi

“Hemengo lagunek horrela bizitzeak merezi ote duen galdetzen didate. Ni orduan sentitzen naiz bizien”



pentsatu etorkizunean; musika beste era batean konposatzeko aukera bikaina zen, eta gustura hartu nuen. Hori orain dela lau urte izan zen, eta orain atzera begiratuta ez da erraza pasa den guztia asimilatzea. Zinemaldian izatea opari polit askoa da.

Nolako izaten da sorkuntza prozesua? Noiz hasi eta bukatzen da?

Film baterako sorkuntza musika album baten sorkuntzarekin alderatuz gero, oso ezberdina da. Gidoia irakurtzen dut eta ideia tenporal batzuk bidaltzen ditut. Behin edizioa hasten denean, bertsio batzuk jasotzen ditut, eta, azkenik, azken bertsioa jasotzen dut. Orduan hasten naiz serio lanean. Zuzendariarekin pare bat bilera luzeren ostean, zein eszenatan zer nolako musika behar dugun erabakitzen dugu, segundoz segundo. Hortik aurrera bi aste izaten ditut musika dena konposatzeko. Iluntze eta asteburuetan egiten dut hori, nola ez. Aldaketak egiteko, orokorrean, beste bi aste izaten ditut. Gero grabaketa ofiziala hasten dut.

Batzuetan dena nik jotzen dut, beste batzuetan musikari profesionalak ekartzen ditut etxera grabatzera edo estudio-rajotzen naiz.

Bada, zenbat instrumentu jotzen dituzu?

Gaizki pixka batzuk eta ondo batere ez! Normalean konposaketak gitarrarekin edo pianoarekin egiten ditut. Hortik aurrera xilofonoa, baxua, harmoniuma eta flauta melodikoarekin egin ohi ditut gainontzekoak. Hala eta guztiz ere, MIDI bitartez ordenagailuan bertan simulatzen ditut

instrumentu asko, eta batzuetan garrantzi handiko melodiak egiten ditut, gainera. Normalean instrumentu errealak eta birtualak uztartzen ditut.

Zuretzat, zer nolako garrantzia dauka soinu banda batek film batean?

Izugarría, noski! Garrantzia galanta dauka, baina horrek ez du esan nahi pelikula bat ikusten dugun bakoitzean musika zeinen ederra den esaten atera behar dugunik zinematik.

Batzuetan gure lana oharkabean pasa behar da; beste batzuetan, ordea, askoz ere nabarmenagoa izan behar du. *Sormenaren Bide Ezkutuak* film laburrean, adibidez, oiloen eszena bat jarri zidaten eta musika jarri behar niola esan zidaten, eszena indartsu bat egiteko. Munduko oilorik onenak ziren horiek niretzat eta horrela errepresentatu behar nituen! Helburua beti zuzendariak nahi duena indartzea da, nahiz eta batzuetan musikalki aproposena ez izan.

Eta soinuak, musikak, zure bizitzan?

Izugarría ere bai, noski! Nire bizitzako momentu berezi ia guztiek izan dute musika lagun. Gogoan dut Islandiara lagun min batekin egin nuen bidaia. Kotxean astebete gidatzen ibili ginen, hitz askorik esan gabe, biok maite genuen musika entzuten. Momentu ahaztezinak izan ziren niretzat. Astero entzuten ditut disko berriak edo soinu banda berriak. Zoragarria da nota batzuekin zenbat musika egin daitekeen.

Zein soinu bandek izan dute influentzia zuzan?

Aurreneko soinu banda potenteena bezala Jamers Horner-en *Braveheart* jarriko nuke. Hortik Clint Mansell-en *The*

ELKARRIZKETA

JOSEBA BRIT

“Estatu Batuetan norberaren espazioa asko errespetatzen da”



JOSEBA BRIT

Fountain eta Requiem For A Dream, Nick Cave & Warren Ellis-en The Road...

Egunerokotasuna asko aldatzen al da hemendik hara?

Nahi duenarentzat bai. Nire kasuan hain lanpetuta egonda, egun batzuetan ez dut denbora asko igarotzen kanpoan; baina denbora gehiago dudanean, hango bizitzaren antzekoa egiten dut. Hemengo lagunekin asteburuetan mendi bueltaren bat egiten dugu, elkarrekin afaldu, kontzerturen bat ikusi...

Jendea akaso independenteagoa da. Ez dago arazorik noizean behin bakarrik deituz gero, norberaren espazioa asko errespetatzen da.

Pelikuletatik ezagutzen dugu AEB, horrela ezagutzen dugula esan badaiteke. Irudikatzen duten modukoa al da?

Bai eta ez. Irudiak oso benetakoak dira, eta herri txikiak akaso ere bai. Portland bezalako hiri berezi baten arima ezin daiteke gehiegi konparatu New York, Houston edo Los Angeleseko bizimoduarekin. Kale batzuek tankera handia dute, nire amak hala esan zuen!

Zer sumatzen duzu faltan Oriotik?

Dena bertan izatea. Etxetik bost minutura nuen lana, taber-

nak, itsasoa, mendia... Hemen dena askoz ere bananduago dago. Aspalditik ezagutzen dudan jendea sumatzen dut faltan batzuetan, nahiz eta duela hiru urtetatik ezagutzen dudan jendearekin harreman estua egiten ari naizen.

Etortzen zara hona?

Asmoa bi urtez behin joatea da, nahiz eta aurreko urtean hiru aldiz joan nintzen. Opor oso gutxi ditugu hemen eta ez da erraza horrelako bidaia bat sarri egitea.

Zer gauza egin dituzu AEBn, hemen egin ezin dituzunak?

Etxeko estudioan diskoak grabatzea, kotxe hibrido bat edukitzea, ardoagatik hainbeste ordaintzea, euskalduna izatea zer den esplikatu eta sexya dela entzutea, ingeniari-tza departamendu bateko buru izatea, itsasoari begira hartu ordez eguzkia ibaian hartzea, spa batera joan eta bainujantzia nik bakarrik dudala konturatzea, terraza batean zerbeza bat edaten egon eta jende mordo bat bizikletan larrubizirik pasatzen ikustea, horrenbeste jendek euskaldunak nor garen jakitea eta, gainera, errespetatzea, egitazko piano bat izatea etxean, laku ondoan txabola bat berritzea, jendeari nire izena esan ezin zutela ikusita Joe deitzeko esatea, bi katu –ederrak katuak!– edukitzea...

■ OSPAKIZUNA



Urrezko ezteiak

Mende erdia igaro dute elkarrekin Patricio Bravo Guerrerok eta Petra Becerra Galánek. 1965ean ezkondu ziren, Extremadurako Zarza herrian. 50 urte beranduago han bertan egin dute ospakizuna, senideekin batera.

■ HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Orioko hondartzak nazka ematen dit. Ez du antzik guk ezagutu genuenarekin. Lehen itsasoak aurrez aurre jotzen zuen. Baina barra jarri dutenez geroztik, hor biltzen da hondarra.”

Patxi Oñden, Danbolin, ingeniaria, Berrian, irailaren 6an.

“Oro har, esan genezake diskoko kanteak ezaugarri komun bat dutela: nokako hizkeraren erabilera. Bada diskoan Oihenartek XVI. mendean idatzitako testu bat, non noka ageri den”

Mikel Markez, kantaria, Berrian, irailaren 8an.

Egin ezazu publizitatea

Karkara

943 83 15 27

aldizkarian

Iraileko sarituak

Amparo Garate

Luis Padrones

Eusebio Aldaz

Zipristin

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



PUBLIZITATEA

Alustiza Autobusak
Alustiza Buletak S.L.



Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel.: 943 83 28 93 / 83 08 80. Mugakorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./ Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

arkaitz taberna
 urio

- Ogitar tekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

MENDIZABAL
ARROZTEGIA
*Neurriko arraiak
 eta egurrak*

943 831 175 Altsari bidaiak
 645 708 491 Berr-Aiz ekoiz
 mendizabal.net 20810 Aia-Orio

SU
KIA
 TAZARRAK, JARDURAK

On egun eta gero... hartz KOPA eta TORRIK

- GILASKO ERREAK ETAMATEKO
- EOLINEROK MENUA
- EOLINERAK
- OGA

TEL. 943 83 10 88
 BARRIO DE T. BARRIO



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 573083 INES ASEÑO
 FAX: 943 571190 IBAI ONDO 13
 lasenjo@hotmail.es 20810 ORIO

Lastet arte!
JATETXEA
Galerna



Antillako Hondartza 5
 20810-Orio-Tel.: 943 89 04 16

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio Zure Konfidantzazko
 943 83 00 34 **Gertuko Tailerra**

BODEGAS
Gailur



ZUDUGARAI



Gabarrak Traditio
 EL BARRIO DE
 T. BARRIO DE
 www.talud.com

2 GURPIL



Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orio (Gipuzkoa)

943 836 980 www.2gurpil.com 2gurpil@hotmail.com

IGLESIAS
SARRILAGILEAK



Javier Iglesias Fernández
 637 723 308
 iglesiasarrilagos@igahoo.es
20810 ORIO


- ATAK INKIZTEN OTZUGI
- SARRILA-ZILINDRO ALDAGETAK
- ATAK IXTEKO MALGUKIN ALDAGETA
- KONJUNTATZENITZAKO ZERRITZUA

KAIUA



TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, KAIUARA
 BOKATA EDERTAK JATERA

Antillako Hondartza 20, Baxoalde
 Tel.: 943 840 000



Oriotik Ugandara babes-keinu polita

Orio Arraunketa Elkartek Ugandara bidali ditu bazkideei eman ohi zaizkien kamisetak, Mukwano-Lagun elkarteko Sabin Gabilondo Orioko dentistak proposatuta. Klubeko kideek ez zuten zalantzarik izan: 500 inguru elastiko bidali zizkieten Ugandako Bujandali herriko haurrei. Afrikako haurrak asko poztu ziren kamiseta horiak jasotakoan. Eta esker-rak emateko, argazkiak atera zituzten, Orioko kamisetak soinean. Aurrerantzean haurren uniforme horixe izango dela esan zieten Arraunketa Elkartekoei. Klubean ere pozik daude ekimenak izan duen erantzunarekin. Traineru polita osatzen dute haur ugandarrek; batzuek arraunlari itxura ere badaukate.

MUKWANO-LAGUN


Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

ARGAZKI ERREPORTAJEA

Triatloia ezagutzeko, bizitzeko eta gozatzeko

152 partaide bildu ziren triatloian. Txurruka paretik abiatu ziren, korrika, uretaraino. Igeri egin ondoren bizikleta gainean jarri eta pedalkadaka ibai ondotik ibili ondoren, bizikleta utzi eta korrika egin zituzten lasterketaren azken metroak. Giro ederrean aritu ziren guztiak.





Udalekuak motorrak berotzeko

Aia-Orio triatloia egin aurretik, abuztuaren 31tik 5era, txikienek triatloiaren inguruko udalekuetan hartu ahal izan zuten parte. 54 haurrek hartu zuten parte Txurrukan egin ziren udalekuetan. Triatloia ez ezik, beste hainbat ekintza egin zituzten.

PUBLIZITATEA

PIZZERIA

 KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46



gizarte
kutxa

Izarra Bideoa

AURREZTU %60 TONERRA
Tonerran beste adarria

22 € TAURUS 300W 

299 € BALAY 1000 rpm 7 kg A+++ 

9 € 16 GB KINGSTON 

9 € 16 GB LEXAR 

299 € HP 500GB 

TIEM 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 TIEM 21

943 831 048
 610 697 668



www.fotoramiro.com
 Orioko jubilatua Saint-Michelen

GEAKTUEK
PATXI OLIDEN
 GEAKTUEK

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
 Eteko produktua: tripaki, odole,
 txakorra, txarizo, krokotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Lizaso dekorazioa



Tf: 943 83 07 84
Faxa: 943 24 87 15
Eusko Gudari, 48

Katu Horia
Elizateko Kafea

ESTROPALARI, 10 20810 ORIO 

tel. 943 11 66 99 Larrietan 688 68 11 28

www.katuhoria.com

libe
 dietetika
 etikadura aholkularitza

EUSKO GUDARIK 35 C ORIO 943 83 00 10

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
 Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
 943 13 25 32

jumpfit®
www.jumpfit.es

Zatoz salto egitera musikaz dantzatuz
JUMPfit tranpolinaren gainean!!

KARELA Erriberak 1, 20810 Orío - 943 894 428 orio@txorport.es



Ludoteka jostatuz ikasteko gunea

Urria erdirako jarriko du martxan Udalak ikasturte berriko nobedadea den proiektuetako bat: **Ludoteka**. **Txurrumuskiren esku dago** HH5 eta LH4 bitarteko haurrentzako espazioaren kudeaketa.

ERREPORTAJEA**TESTUA: O. ARTOLA ETAM. GARCIA****ARGAZKIAK: KARKARA**

Maiatzean amaitu zen legegintzaldian hainbatetan jarri zen mahai gainean ludotekaren gaia, eta azken udal hauteskundeetan, alderdien programetan presentzia nabaria izan du gaiak.

2011n etorri zen lehen proposamena. Orain plataformak Udalak Kale Nagusiko hogeita bederatzigarrenean zuen jabetza salduta lortutako dirua ludoteka egitera bideratzeko proposatu zuenean.

EAJren babesa zuen etxebizitzak saltzeko. Eta, adostu zuten salmentako dirua ludotekan inbertituko zutela. Tirabirak izan dira gaiaren inguruan, baina, azkenean, indarrean hartu zuen Orain eta EAJk adostutakoak: etxebizitzetatik lortutako 354.025,14 euroak ludotekara bideratu dira.

Obrak 2015eko maiatzaren hasieran hasi ziren eta, gutxi gorabehera, 200.000 euroko kostua izan dute obrek. Horri, ekipamenduaren 15.000 euroak gehitu behar zaizkio, 215.000 euro guztira. Maiatzean hasitako lanak urri erdialdean amaituko dira, eta orduan irekiko ditu ateak ludotekak.

Kudeaketa Txurumuskiren esku

Ludoteka berriaren kudeaketa lehiaketa publiko bidez aukeratu behar zuen Udalak. Eskolaz kanpoko hezkuntza ez formalaren proiektuak integrala izan behar zuela iritzita, ludotekako eta gaztelekuko zerbitzua elkarre berak eramatea egokiena zela erabaki zuten. Txurumuskik gaztelekuaren kudeaketarako zuen kontratua oraindik amaitzeko zegoen, eta Udalak kontratu hori bertan behera uztea eta proiektu integral batekin ludoteka eta gaztelekuaren kudeaketarako lehiaketara aurkeztea proposatu zion Txurumuskiri.

Txurumuski izan zen proiektura aurkeztu zen talde bakarra. Intereserakutsi zuten beste hainbat elkarre baziren ere, herrian bertan taldea bazegoela ikusirik, ez aurkeztea erabaki zuten. Ekainean esleitu zitzaion proiektua, dagoenerako obra hasita zegoenean. Ekipamendua jartzea eta lanean hastea bakarrik falta da orain.



Espazioaren antolaketa

Hainbat altuera ditu Ludotekaren lokalak. Sarreran bulegoa dago, eta horri lotuta areto handi bat. Hori izango da Ludotekaren areto nagusia, erabilera anitzeko gela izango da. Mahaiak egongo dira eta ekintza nagusiak bertan egingo dituzte.

Bigarren altueran antzerkiko txokoa egongo da. Lokalak berak zuen koska bat aprobetxatuz, agertoki txiki bat egin dute. Eta azkenik, hirugarren altueran, sabai baxuko txoko ba dago. Irakurketa eta bestelako ekintza lasaiak egingo dituzte han.

Astelehenetik ostiralera, arratsaldez

HH5etik LH4ra bitarteko haurrak hartuko ditu Ludotekak, eta astelehenetik ostiralera irekiko dute, 17:00etatik 19:30era. Oporraldi garaian, jai egunetan izan ezik, ordutegi berezia izango du.



“HH5etik LH4ra bitarteko haurrak hartuko ditu ludotekak, astelehenetik ostiralera.”

“Ludoteka beste testuingurutan elkartuko ez diren haurrak elkartzeko aitzakia da.”

“Proiektu integrala izango da: hezitzaile berak egongo dira ludotekan eta gaztelekuan.”



Ardatz edo gai desberdinak oinarri hartuta –plastika, musika, literatura...– asteartetik ostiralera ekintzak egingo dituzte. Astelehenak jolas libreko egunak izango dira.

Horrez gain, hiru hilabetetik behin irteerak antolatuko dituzte. Gurasoek ere irteera horietako batzuetara joateko aukera izango dute.

Ludotekan izena ematen dutenek hiru egunetan joateko aukera izango dute. Batetik, astelehenetan, jolas libreko egunetan. Bestetik, gainerako egunetatik bi aukeratu beharko dituzte matrikula egiterakoan.

Hiru matrikula aldi irekiko dira. Lehena, urrian, ludoteka irekitzen dutenean, eta beste biak urtarrilean eta apirilean. Urrian plaza guztiak geratuko ez balira irekiko dira azken bi matrikulazio epeak. Prezioak sinbolikoak izango dira.

Jolasa oinarrian

Txurrumuskik herriko umeekin egiten dituen dinamikak oinarrian hartuz, ludikotasunetik abiatuko dira ludotekako ekintza guztiak. Izan ere, *jolasen bitartez gauza asko ikas daitzkeela* diote arduradunek.

Ardatza jolas hezitzailea izango da eta, jolasa erreminta gisa erabiliz, adin tarte desberdinetako umeak elkarren artean harremanetan jarriko dira. Azken finean, *ludoteka espazio bat da, beste testuingurutan elkartuko ez diren haurrak elkarrezko aitzakia*.

Horrez gain, gaztelekuak ez bezala, ludotekak gurasoekin zuzeneko harremana izateko aukera emango die hezitzaile-

ei. Hori alderdi guztientzat aberasgarria da: *gurasoek ludotekako dinamika ezagutuko dute eta guk feedbacka jasoko dugu*.

Proiektu integrala

Ludoteka eta gaztelekua, biak kudeatuko ditu Txurrumuskik. Hezitzaile berak egongo dira bi lekuetan eta, ekintzak elkarrekin egingo ez dituzten arren, jarraipen bat ematea da asmoa. Hezitzaileen erreferentzia izanda, ludotekako umeak hazten doazen heinean gaztelekura pasatzea da Txurrumuskiren helburua: *umeentzako garrantzitsua da beti erreferente berak izatea, konfiantza hartzen joateko*.

ZENBAKIA

40

Haur eguneko. Hori izango da ludoteka berriaren edukiera, legeak hezitzaile bakoitzarentzat gehienezko haur kopurua ezartzen baitu. Hala ere, plaza gehiago izango dira, bi egun aukeratzeko sistemarekin ume guztiak ez direlako egun berean joango.

Kosta eta itsasoa hotza eta beroa



Kultur etxeko erakusketan ikus daitezkeen hainbat lan. KARKARA

Kritika Jokin Miralles

Pintura erakusketa, Jokin Miralles margolariak erakusketa zabaldu du Orioko kultur etxean. Irailaren 18tik urriaren 2ra.

arauztarra da izatez. Orion familia dauka. Brasil eta Venezuelan bizitakoa. Eta egun, Deba bizitoki duena. Lotura horiek guztiak nabari dira Mirallesen trazu bakoitzean.

Margolaritza Mirallesen afizioa da. Enpresari ofiziotik erretiratuta, trazu eta trazu arten arinagoa egiten zaio denboraren joana. Txango artean ezagututakoa mihisean gordetzen du; margolanekin oroitzapen bilduma osatzen duela esan daiteke.

Bizia ikusten da Mirallesen margolanekin, bere bizipenak islatzen dira kolore hotz eta beroen arteko koadro bizietan. Ezer esan gabe hitz egiten dute bere lanek. Nabaria da motxila esperientziaz josia duela. Begi bistakoa da euskal kostaldea maite duela. Argi ikusten da itsasoko nahiz itsasoari lotutako lehorreko lanak atentzioa ematen dituela, langileak mirentzen dituela.

Kapaz da Miralles trazu simple bezain landuekin, enpaste asko erabilia eta konposizio itzela duten koadroekin euskal kostaz duen ikuskera transmititzeko.

OLATZ ARTOLA

GARMENDIA
INMOBILIARIA - ANOKILARITZA - ASBETURIAK
Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

**OREKA
FISIOTERAPIA**
Tendinitisak
Lumbalgia
Artritis
Zefaloak
Masaje terapeutikoa,
denturak, akupuntura,
induko terapia,
osteopatia
943 13 35 37
Arizaga kalea, 11. Aldea

kutixi
kafetegia
GOSARI GOWAK
Arizaga 9, 20810 Oriu
Tel: 943 13 15 17

He apaindegia
MARIJO
Neke eta
mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - behe
Tel: 943 13 47 29
ORIO

azkue
karrozeria
Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Oriu
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

“Egungo bertsolariek ez diote puntuari brau erantzuten”

Martin Rezabal Olaso

Bertsolari ohia

24 urte beteko dira abenduan Martin Rezabal Olaso Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalera iritsi zenetik. 1991ko txapelketa izan zen, boomaren txapelketa, telebistaren txapelketa. Aurtengo txapelketa hasi berri den honetan, egin dugu zita berarekin.

RIKARDO UZKUDUN

Zer oroitzapen duzu 1991ko txapelketa hartaz?

Ona. Finalean lasai jardun nintzen, hurrengo egunetan izan nituen komeriak, *hau kantatu banu edo hura esango banu*. Ustekabean sartu nintzen finalera, baina gustura aritu nintzen. Pentsa, lau kanporaketa jokatu ondoren sartu nintzen finalera.

Txapelketa sonatua izan zen. Bertsolaritzak telebistari esker, besteak beste, izugarrizko aparraldia bizi izan zuen.

Bai. 11.000 lagunetik gora elkartu ziren belodromoan. Garai hartan, Aian juntatzen ginen entrenatzeko Lertxundi, Zendoia, Otamendi, Artzain, Arrillaga eta neroni. Txapelketaren ondoren, pare bat urtean, saio dezente izan nituen, baina gero hari segi egin behar zaio eta, lanean bazabiltza gogorra egiten da. Berandu etxeratu eta goiz jaiki behar!

Gogoan al duzu finaleko bertsorik?

Bai. Amak esandakotik ateratakoa, bukaera emanda. Bukarra horrekin, uste zen, politikaz edo jardungo ginela, baina nik hortik jo nuen.

Al baldin badek zortzigarrengo, Martin ez ha(d)i behintzat erten! / gure nekeak eta negarrak, ametsek jan ez ditzaten!

Publikoa ere desberdina zen. Ez da orain bezala, ez zen pankartarik jartzen eta builarik egiten. Inguruko lagunartea



joan bai, baina isilik egoten zen, eta bertsoa preziatzen zuen. Gaur egun, iruditzen zait batzuk txapelketara bakarrik joaten direla, eta urte osoan ez direla plazetara joaten.

Noiz eta nolatan hasi zinen zu bertsotan?

Soldadutzan. Urdairako nagusiaren bikiarekin, bertsoak kantatu eta kantatu! Aurretik, baserrian, irratiz bertsoak entzun eta doinuak ikasiak neuzkan. Aiako festetako saiora etorrita ere, buruz ikasita eramaten nituen lau edo bost bertso, eta haiek kantatzen pasa aste osoa! Joxe Agirre nuen gustukoa, erantzun azkarreko bertsolariak jeneralean, bizi kantatzen zutenak.

Nola ikusten dituzu gaur egungo bertsolariak?

Ez dira erantzun azkarrekoak. Bertsoa bete bai, baina puntuari erantzuten behintzat, ez dute brau erantzuten. Bertsoa pentsatzen ere, kartzelakoan batez ere, denbora gehitxo pasatzen dute sarritan.

Aian, bakarren bat badago, baina ez da ikusten segida handirik.

Eskolatik deitu zidaten behin, baina ni ez nengoen hutsetikan erakusteko. Kopletan ere aritu balira gutxienez, hortik aurrea jardun eta zuzentzeko bai, baina 7/6 edo 10/8 erakusten hasteko ez. Pentsa, ni soldadutzaren ondoren, Gabiriako Osinalde sarira joan nintzen zortziko txikia 7/6 eta nagusia 10/8 silaba zituztela jakin gabe. Doinuak banekizkien, eta zein neurri zuten ere bai, baina zenbat silabak osatzen zuten arrastorik ere ez. Halere, bost urtetan eman zidaten bertso onenaren saria, kar, kar, kar.

Akordatzen al zara Sarasuaren tongoaz?

Ni kartzelan nengoen, eta gero jakin nuen guztia. Egunkarien arabera, faboritoak Lizaso, Egaña eta Eguzkitze ziren... zaila izango omen zen hirurak kale egitea. Eta begira, Peñagarikano txapelkun, eta Sarasua ere txapelkun izango zen noski, hura egin izan ez balu. Nik ez nuen azkena egin eta gustura, zazpigarren. Esan beharra dago orduan, finalista guztiak 25 eta 35 urte artean genituela, eta 70 bertsolaritik gora aritu ginela txapelketan.

Memoria



Garbiñe Manterola

Zer den giza memoriaren ahalmena: memento kritikoetan lagundu digutenen aurpegia burmuinean iltzatuta geratzea urte luzeetan

azpi edo zortzi urte izango zituen gure osaba txikia Jonak bapore batean sartu zutenean. Bilbon, 1937an. Ingalaterrara eraman zuten anai-arreba eta lehengusuekin batera. Gerra zibilaren garaian, familia abertzale baten baitan jaiok izatea, hura zuten erru bakarra. Urte pare bateko deserriratzea izan zuten eta, gerora, bere familiarekin elkartu ziren Zarautzen.

1970ean, osaba Jon bere emazte eta lau koinata-koinaturerekin Italiara joan zen, oporretan. Erroman ostatu hartu zuten hotelean gizonetzko bati erreparatu omen zion. Aurpegia ikustearekin batera argi izan omen zuen, 33 urte atzera egindako bapore bidaia hartan lagundu zuenetako bat zen. Galdera egin eta gizonetzkoak harriturik baiezkoa eman zion, lan horietan jarduna omen zen.

Liluraz aditu izan diot amonari behin eta berriz istorioa. Bera baizen automobil hartan joan zenetako bat. Zer den giza memoriaren ahalmena: momentu kritikoetan lagundu digutenen aurpegia burmuinean iltzatuta geratzea urte luzeetan.

Badut lagun siriar bat, Sam. Lagun min baten lagun mina.

Etxeko maiorazkoa. Londresera dirua egitera joan zen Sam, gero bere herrian etxea eraiki eta negozioa jartzeko. Urteetan jardun zuen amets hura errealitate bihur zedin. Egin zuen etxea, eta Londresen jarraitu zuen, negozioa ere eraikitzeko asmotan. Sirian ezkondu, eta emaztea bere gurasoenera aldatu zen. Izan zituzten hiru ume ere.

Orain ez guraso, ez emazte, ez eta seme-alabak ere ez dira Sirian. Sam bera ere ez. Samek, gaur egun ere dirua egiten jarraitzen du Londresen, eraikitako etxea ez delako jadanik zutik. Bere familiak herritik alde egin zuen gauean bertan txikitu zuten. Dirua egin behar berriz ere. Ez ondasuna pila-tzeko, osasuna izateko baizik. Inoiz elkarrekin topo egingo duten esperantzan.

Bi istorioei lotura egin diet egunotan, behin eta berriz komunikabideetan siriarren exodoa ikustean. Nire onerako zera pentsatzen dut, europarron geurekoikiariak aldaketarik ez badu, Samen familiako kideek ez dutela memoriaren liluraz hitz egingo etorkizunean. Ez dute-eta hemendik hiru hamarkadatar gaur lagundu berri dien horren aurpegiarik gogoratuko. Lagunik ez dutelako. Lagundu nahi ez diegulako.





Ander Atorrasagasti

Sare (anti)sozialak

Gurasoen buru arinkeriagatik ere edozein parketan ikus ditzakegu zazpi urteko haurrak azken modeloko mugikor onenarekin.

Jakina da gazteok teknologia berriei ez diegula behar bezalako erabilera ematen eta horren lekuko da mugikorra edo ordenagailuekiko dugun lotura estua; ezin ordu erdi egon whatsapp begiratu gabe! Sare sozialetan ere filtrorik gabeko argazkiak igotzeko zaletasun handia dugu, gure itxurarik onena lau haizeetara zabaldu eta bart gaueko parrandaren oroitzapen bat gordetzeko asmotan edo, argazki horiek etorkizunean gure aurka nola joan daitezkeen ohartu gabe. Gure egunerokoaren parte dira eta hainbeste direnez erabilera bat eman behar bakoitzari.

Uda honetan esaterako, Kukuarrirako espedizioen argazki mordoa sufritu behar izan ditugu, Iñurategiri jarraitzen niola uste izan dut une askotan. Honera arte ezer berririk ez, denok gaude aparatu elektronikoetara.

Gurasoen buru arinkeriagatik ere edozein parketan ikus ditzazkegu zazpi urteko haurrak azken modeloko mugikor onenarekin metro batzuetara duten lagunarekin *txateatzen*, adiskidetasuna sortzen edo.

Hala ere, sare sozialetan azken hilabeteetan gehien harritu nauen datua Ashley Madisonena izan da, ezkonduen euren bikoteari adarrak jartzeko web orrialdearen filtrazioek eskaintako zenbakiak, Orio Gipuzkoako adardun gehien dauden herrietan kokatuz. Antza denez, Telecinco gehiegi ikusteak bat baino gehiagoren sua piztu du eta Orio *adardun zibernetikoen herri* izendatzeko unea iritsi da. Gazteok, ez oparitu ordenagailurik gurasoei badaezpada!

Azken finean adin tarte guztiak online gaude Orion, denetan ematen diogu erabilera okerra sare sozialei baina modan egon nahi horrek sortzen duen prezioa da, eta ez pentsa aldatuko denik. Hurrengoa zer izango ote da?

Eskerrak jubilatua lege zaharrean jarraitzen duten, txu-txu trenari wifia jarri beharko diogu bestela eta.



SINERGIA
FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 885 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTARUNAK HAUR ETA HELDUEKIN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOAK, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

PUBLIZITATEA



Sagasti
LEINOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileinoak.com
Asteizate Kalea: 05
20810 ORIO (Lapur/Ar) 

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

LUXARBE
igeltsentza

Igeltsentza orokorra,
denotarik egiten dugu. ✕

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe ✕

Lan txukuna
eta merkea ✕

Tfnor: 943 33 59 00

BELOKI AUTOMOZIOA
TEL. 606 06 38 60

Aukeratutako ibilgailuak
Km.0-koak
3-4 urtekoak
Merkeak




Ibai Onda, 3. behea ORIO

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

**ZAUDEN
LEKUAN
ZAUDELA**



karkara.eus

KOLON TXIKI
*ularrak eta
julekues*



Herrilho Erparantz, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

BAUILETA HELPUENTZAKO JANTZIAK



ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARIZAGA PAILA, 2 TEL. 943 13 11 48
10% DESKANTUA FAMILIA UGARIENTZAT

**LEUNDA
OKINGEDIA**



ORDUTEGIA
ZSTILEKINETIK - LARUNBATERA 7:00 - 20:30
KOTXDESTE JAI EGUNETAN 7:00 - 13:30
Tfnor: 943 89 66 67

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

komertzial instalazioak - beira bikoitza
segurtasun beirak - dotxa-itxiturak eta irristaliuak
- ispliuak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

edari degia
ANTILLA
julekues



Aheslari Kalea, 2 - Tel. 013 83 23 00



INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





OROIMENAREN KUTXA

1936ko gerrako biktima baten hileta.

Biktimak

Oroimenaren kutxa

Udara garai ona da tertuliarako. Niri Orioko batek eman dit atentzioa: aspalditik egiten dute, ia egunero. Gozotegi baten kanpoaldean egoten dira, mahaiaren bueltan eserita, arratsaldean. Denak emakumezkoak, adinekoak, zortzi bat. Berriketan, lasai, goxoki.

Zertaz hitz egiten ote dute, iraganaz? orainaz? etorkizunaz? Haien adina kontuan hartuta, logikoa da pentsatzea iraganaz aritzen direla. Baina ez dakigu. Eman dezagun irailaren 4an telebistan entzundako albiste batez ari zirela:

- Hi, gaur Lehendakariak 128 herritako alkateak elkartu dixkin.

- Egia, gure alkatea ere izan den, Jose Anjel.

- Uste dinat bilera zala herriz herri biktimak oroitzeko, haiei omenaldia egiteko.

- Hortaz, Orion ere biktimei omenaldia egingo zienate.

- Ederki, Orion izan ditun-eta biktimak, izan direnez!

Eman dezagun gero denen artean oroimen-ekitaldiak bildu beharko lituzkeen zerranda osatzen aritu zirela emakumeak:

A-ren aita tiroka hil zinaten taberna batean, bazkaldu ondoren kafea hartzen ari zela, kontzejala zunan, gure artera Asturiasetik etorria; A ere orain zinegotzia den, bere aita zen bezala.

B-ren semea ere hil egin zinaten, beste taberna batean zela, gizon batzuek tirokatu egin zinaten, ez politikan ez ezertan sartzen ez zen gazte arrantzalea.

Calarguna den, haren senarrazena etxetik eraman zinaten lotuta toki ezkutu batera, familiak diru asko ordaindu behar izan zinan gizon hura askatu zezaten.

D neska gaztea zunan orduan, egun batean poliziak atxilotu eta, haren berri inori eman gabe, bahituta eduki zinaten, torturaren bidez haren lagun batzuei telefonoz deitzera behartu zinaten, haiek Iparraldetik etor zitezen; haien zain egon eta tiroka hartu zizkintan, eta bost hil.

Jakin ez dakit zertaz aritu ziren emakumeak irailaren 4ko tertulia goxoan. Badakit, Orion bakarrik, mehatxu, txantaje, tortura eta bortizkeriaren atzaparrak nozitutako guztiak zerrrendatzeko, alfabetoko letra guztiak ere ez lirakeela aski.

Hori pentsatzen ari nintzela, jabetu nintzen zerk lotzen dituen emakumeok. Hau dek marka hau! Seguru asko ez da horrela izango, baina niri behin eta berriz ideia bera dator kit burura: 1936ko gerraren uberak batzen ditu, beraiek ere biktimak dira. Hara:

G-ren aita fusilatuta hil zuten.

H-ren aitak Frantziara ihes egin behar izan zuen, eta urte gutxitara familia eraman Oriotik. Han geratu behar izan zuten bizitza osorako.

I-ren aita mikelatea zen; gerra hasi zen urtean hiru mikelate zeuden Orion, haietako bat hil egin zuten eta I-ren aita lanik gabe geratu zen.

J-ren familia osoa ihesean ibili zen Katalunian eta Frantzia.

K ez da sekula ahaztuko bere ahizpa zena nola ibilarazi zuten kalean gora eta behera, ilea moztu eta burua erabat soiloduta, beste bi neska gazterekin batera, haiek umiliatzeko eta lotsarazteko.

Beharbada horixe zuten gogoan emakumeok: berak ere biktimak direla. Baina, seguru asko ez. Litekeena da etorkizunaz aritzea, omenaldirik beharko ez den garaiaz, biktimarik gabekoaz. Utopiaz.

IÑAKI TURAIN

Euskara eskura jartzea aho batez hartutako erabakia



Kosta tailerlean jarri dute Euskaltegiaren barnealdea. KARKARA

Euskara ikasteko eskaintza hanka motz gelditzen zen orain arte. Hutsetik euskara ikastera etortzen zirenek, behin ikasturtea amaituta, ez zuten aukera izaten ikasten jarraitzeko; ikaskuntza prozesua eten egiten zen.

Orain, ordea, ez da ordutegien eta izena ematen dutenen baitakoa izango ikasteko aukera, beti egongo baita autoikaskuntzaren atea zabalik.

Euskara ikasteko eskaintza jada ez da herrena. Oinarria tinkotu dute, pauso sendoak emateko.

Kosta tailerra Udal Euskaltegi

Herriaren bihotzean kokatu nahi zuten Euskaltegia. Aurreko legealdian Salaxon egitea erabaki zen, EH Bilduren eta Orain plataformaren aldeko botoekin. Baina, orain, gehiengoak aldatu dira eta Euskaltegiaren kokapena ere aldatu egin da. Kosta tailerra izango da euskaltegia aurrerantzean, PSEk eta EAJk horrela adostuta.

Obraren adjudikazioa uztailean egin zen eta lanekin abuztuan hasi ziren. Irailaren 15ean amaitu zituzten lanak, eta 23.223 euroko kostua izan dute.

Erraztasunak euskara ikasteko

Adostasun osoa izan dute Udalean, guztiak ikusten zuten eskaintza berritzeko eta indartzeko premia; guztiak nahi dute oriotarrek euskara ikasteko erraztasunak izatea. Errazagoa izan dadin, zerbitzu berritua eskainiko du, eta, gainera, doakoa izango da.

Eskaintza mardula

Maila guztietako eskolak emango dira, 0 mailako ikastaroetatik hasita. Alfabetatzea, euskalduntzeko maila guztiak eta azterketak prestatzeko ikastaroak izango dira, baita mintzalagun taldeak ere. Horiek, oso baliagarriak izango dira autoikaskuntza egiten dutenentzat, eskolak taldean ez jasotzearen eragozpen bakarra hori baita.

Autoikaskuntza da berritasuna

Konpromisoa. Besterik ez da behar autoikaskuntzarako. Etxetik edo euskaltegira joanda, baina, betiere, bakkariketa ordutegi finkorik gabe ikasi ahal izango da euskara. Tutore bat izango dute ikasleek, eta astean behin bilduko dira harekin, zalantzak argitu eta ahoz-kotasuna lantzeko.

Euskara doan ikasteko aukera

Eskaintza zabal hori guztia debalde izango da. Udalak aho batez nahi izan du esfortzu ekonomikoa egin eta doan jarri euskara ikasteko aukera. Ehun euro ordaindu beharko dira, baina fidantza moduan, amaitzean itzuli egingo baitzaizkie.

Zerbitzua AEKk kudeatuko du eta 20.500 euroko kontratua egin du 2015-2016 ikastarorako.

Izena Euskaltegian edo udaletxeo Euskara Zerbitzuan eman daiteke eta eskolak urriaren 20an hasiko dira.

EAJ**Orioko Euskaltegia atek irekitzera doa**

Aurreko legealdian hasitako lanaren burutzea ikusiko dugu las-ter Euskaltegian. Hasiera batean kokalekuak hainbat gorabehera izan zituen, baina, azkenean, oriotar guztiek izango dute Orioko Euskaltegian euskara ikasi, sakondu eta lantzeko aukera. EAJren helburua, euskararen erabilera indartzea izan da beti. Helburu honetarako egokitu dugu gune hau. Inongo traba eta oztopo gainditu beharrik gabe, euskara ezagutu eta maitatzeko eskubidea izango dute oriotarrek. Udalak erraztu egin nahi du euskara ikasteko aukera eta, horretarako, zerbitzu berriak eskainiko ditu. Zerbitzuaren kostuak Udalak ordainduko ditu eta Urola Kostako AEKk kudeatuko du. Lerro hauen bidez, espazio honen ekipamendurako Orain talde politikokoak egindako ekarpena eskertu nahiko genuke. Beste erabileretako bat, udaran, umeen errefortzu eskolak izango dira, EAJrentzat guztiz beharrezko ekimena. Euskara delako gure erronka handietako bat, merezi izan du egindako inbertsio ekonomikoak.

Orain**Euskarak eta Oriok merezi dutelako**

2011-2015 legealdiko Hezkuntza batzordeko buruaren eskariz Orioko Udaleko Euskara teknikariak *Euskara-ikastaroen eskaintza Orion* txostena egin eta 2014ko uztailaren 22an aurkeztu zigun talde politikoei Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festa batzordean. Txostenean Oriok euskara eskaintza egokirik ez daukala ondorioztatzen da. Autoikaskuntza metodoetan sakontzea gomendatzen du eta toki finko bat izatea, zenbat eta ageriago eta erdigunetik gertuago, hobeto. Autoikaskuntza eskaintzetik aparte Euskaltegia talde *normalek* klaseak hartzeko eta kolektibo berezientzako ikastaro laburrak emateko guneaz gain, Mintzalagun eta antzeko egitasmoak bideratzeko eta Korrika bezalako sustapen-jardueretarako ere balioko zuten. Oriko bezalako herriek arnagune eta eredu izaten jarraitu behar dute Euskal Herria euskaldun baten bizitzeko. Guztiok dugu zer ikasi eta hobetu, denok daukagu gehiago erabiltzeko ardura, euskarak eraman gaitu eta garena izatera.

EH Bildu**Baliatu aukera**

Aurreko legealdian bideratu zen proiektua: euskara ikasteko aukerak indartu behar ziren herrian eta lanak aurreratuta utzi genituen. Herri erdian egokiago ikusten genuen kosta tailerrean baino, baina jarraipena izan du guk hasitako lanak. 80ko hamarkadan hasi zen Orion euskara ikasteko aukera egotearen aldeko borroka; orduan AEK hasi zen Talai Mendiko lokaletan, *gau eskola* esaten zitzaiona eskaintzen. Orduz gero aldaketak izan dira, baina egun Euskaltegiak badu toki fisiko propio bat, erreferentziazkoa izango dena. Udalak egin du apustua, baina euskaraz dakigunok ere badugu zeregina, Oriko herri euskalduna dela harro esaten dugu askotan, baina 2015eko datuen arabera Orion %63koa da euskararen erabilera. Zaila izango da herritarrek euskara ikasteko pausoa egitea bertakoek erabiltzen ez badugu. Beraz proiektu honetan guztiok dugu erantzukizun apur bat. Herritarren garaia da orain: doan euskara ikasteko aukera duzue. 30 lagun animatuko ote dira? Baliatu aukera.

PSE-EE**Euskaltegi berria**

Hizkuntza bat transmititzeko eta bultzatzeko modurik onena hizkuntza hori ikasteko aukerak ematea da. Horregatik, Orion euskaltegi berria irekitzea notizia ona da, bai euskararentzat eta bai bere euskara-maila hobetu nahi duen edozein oriotararentzat. Euskaltegiak ordutegi malguak izango ditu eta eskaintza zabala bideratuko du.

Nabarmentzekoa da, lehenengoz, autoikaskuntzaren aukera emango duela eta, hartara edozeinek izango duela modua bere kasa ikasteko, irakasle-tutore baten laguntzarekin, bere ordutegi eta erritmo propioan.

Euskaltegiaren gastua Udalak estaliko du erabat eta, beraz, edozein oriotarrek izango du matrikulatzeko aukera.

Orioko PSEko kideok oriotar guztiak animatu nahi ditugu euskaltegiara joateko eta bertatik bertara jasotzeko eskaintzen dituen aukeren berri, asko dira-eta.

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitar tekokoak

943 83 06 09

ITZALA

Kontak hartzeko
943 83 12 51

ITZIAR

Kirolak

Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Aseguru-ajentea

ASEGURUAK

Abeslari, 4-2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

PUBLIZITATEA



Imanol Ilarramendi
Ala (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com  665 70 33 47



Maidor Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzaia 83 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODLOGIA ZENTROA



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net




obrak
proiektuak
emehabiltzatloak
koordenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
etaikinen mantenua

arkitektura

barja agiresarabe lapeteg
henko-baita 6, behiea
20600 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

tel/fax: 943 89 00 69
Bikoa kalea 4 - 20600 ZARAUTZ



URBIDE OK

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

PREZIOAK OPIKATUK DAZTE

Kinkladenda- Uma arropa



www.lasoria.net.com/argine
Tel. 943 13 48 69

25eko PESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN



ARISTERRAZU
jatebxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



ROSANA ARRUTI
MAKILAK ESTILATU



Tel: 943 83 58 45
fotorosanaarruti@gmail.com



Portu
EKRENEGIA

Santa Eneka Auzoa, 41
943 89 44 94
20600 AIA-ORIO

braxtoke, lasorako, pikotek
santako orotatik etxeko marea



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Gure eskola



Lardizabalgo eskolan bi eraikin daude eta hirugarrena egiten ari dira. Lehen hezkuntzan 83 haur daude eta haur hezkuntzan 62, beraz, 145 ikasle guztira. Hurrengo urterako eraikin berria bukatuko dutela pentsatzen dugu. Eskola horretan honako gela hauek egongo dira: HHko gela, jangela, soinketa gela –erabilera gehiago ere baditu–, zuzendaritza gelak etab. Espero dugu hurrengo urterako bukatzea eta eraikin berria erabiltzea.

ORIOKO HERRI IKASTOLA

Udara hau izugarria izan da!



Gure bizitzako udarak onena izan da! Uda da urteko urtarorik onena, oporrak nagusi, bizitzaz gozatzeko aukera paregabea ematen baitu. Oporraldia luzatuko bagenu denontzako hobe baina ez naiz ikastolara joango esateko aukerarik ez dagoenez, ikasturteari ahalik eta ondoen helduko diogu. Tartean gustuko ez ditugun azterketak ere izango ditugu, baina lasai gaude, hurrengo oporraldia ere iritsiko baita. Gora oporrak!

ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Kanasta berriak, saskiratzeak eskolan egiteko



Joan zen ikasturtean, Zaragueta Eskolan, saskibaloian jolasteko bi zelai berri prestatzen hasi ziren. Udako oporraldian lanak bukatu eta irailerako, hasi berri dugun ikasturterako, prest zeuden. Oso politak gelditu dira.

Jolas garaian erabiltzen ditugu, baina eskola kiroleko partiduak ere bertan jokatzeko aukera izango dugu. Hemendik aurrera Zarautzera larunbatetan gutxiagotan joan beharko dugu, eskolan bertan jokatuko baitugu!



Ainhoa Bontigui

Antillako hondartza hobetu al daiteke?

Bi mila eta hamabosteko udara bukatu dela eta, hurrengo urteko udan hondartza gehiago aprobetxatzeko hainbat proposamen eta ideia aipatzea bururatu zait oraingo honetan.

Gai garrantzitsuenetako batekin hasiko naiz: hondarra. Hondarra da hondartza baten funtsezko zatia, baina, Orion, hori da arazorik handienetakoa. Antillako hondarra, harea baino gehiago harri txikiak eta makiltaxoen pilaketa bat da. Ondorioz, pixka bat gogaikarria egiten zaizu hondar hartan ibiltzea. Gainera, are eta okerragoa da, hondar hori zikina egotea. Hondartzatik ateratzean oinak hauts marroixka batez estalita edukitzen dituzu beti. Nire galdera honako hau da: ez al dago hondarra garbiago egon ahal izateko konponbiderik?

Agian ez, eta benetan penagarria iruditzen zait, arazo hau alde batera utziz, Orioko hondartza zoragarria delako. Ez da handiegia, ezta txikiegia ere, herritik gertu dago edozer behar baldin baduzu, eta paisai polit batez gozatu dezakezu, eguzkia hartzen duzun bitartean. Bestalde, adibidez, surf-a egiteko, olatuak oso onak direla eta, oso erakargarria izan daiteke Antilla. Eta harea garbiago egongo bazen, are eta gehiago.

Beraz, horixe da nire iritzia, eta ez dakit konponbide bat dagoen ala ez, baina behintzat niretzat garrantzi gehiena duena bete dut; pentsatzen dudana jakinarazi dizuet.



Gizartea

Itsasoarekin loturiko lehorreko lanak erregulatzea eskatzen dute

Orion bederatzi saregile daude. Gaur egun dituzten lan baldintzan lehengoak baina hobek diren arren, gaixotasunak eragin ditzakeen egoeratan ere izaten dira oraindik, istripuak izateko arriskua dute eta ez dute ordutegi finkorik. Baina, arazorik handiena saregileak izateko titulu ofiziala ateratzera behartu dituztela da, eta, hala ere, ez dela ofizialki lanbide moduan aitortzen. Itsas Emakume Langileen Federazioa sortu dute beren lana lanbide gisa aitortzeko helburuarekin, izan ere, itsasoa gizonezkoen sektorea dela eta emakumeak laguntzeko daudela uste dute oraindik askok.

@karkara.eus/orio/14222657508



HASI TXIOKA

Gazte Festak hastear dira, txiokatu #GFOrio traolarekin!



Kirola

Zaila du Eizmendik bi tituluak irabazteko

Nahiko etsita dago Eizmendi. Hanka sartze edo gaizki ulertu baten ondorioz, ezin izan dute asteburuan Jaizkibelgo Igoeran parte hartu, eta, honenbestez, titulutik urrundu da. Parte ez hartzearen arrazoia honakoa da, azalpen hau eman die antolakuntzakoek: *Arratsalde on. Izena eman duten auto gidarien kopurua dela eta, lehenetsuna izena azkarren eman zutenei eman diegu eta izen ematearekin batera ordainagiria bidali dutenei.* Eizmendirentzat kolpe handia da hori, ezin izan baitituzte titulua lortzeko puntuak pilatu.

Kultura


Lau oriotar Bertsolari Txapelketan

Udaberrian abiatu zen Gipuzkoa Bertsotan, 74 bertsolarirekin. Saillapen fasetik 30 bertsolarik lortu zuten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako txartela. Tartean lau oriotar daude: Iñaki Gurrutxaga, Ibai Esoain, Egoitz Eizagirre eta Xabier Sukia. Azken honen irailaren 27an, igandearrekin, Lasarte-Orian kantatuko du. 17:30ean hasiko da saioa eta kultur etxean izango da.

Kirola

Surf Txapelketa irailaren azken asteburuan

Uda amaitu eta hondartza husten denean izaten da, urtero, Orioko Surf Txapelketa. Irailean edo, beranduenez, urrian, herriko surfleri eta surfzaleak elkarren dira hondartzan OST antolatutako lehiak gozatzeko. Aurtengo txapelketa badu data dagoeneko, irailaren 26an eta 27an izango da. Aurten, parte hartzeko moduan aldaketak egongo dira.





Gizartea

18 hilabeteko espetxe zigorra eskatu dute Madariagarentzat

Lau urte igaro dira Errekalde auzoko Kukutza gaztetxea hustu eta bota zutenetik. 2011ko irailaren 23an, beren desadostasuna adieraztera joan ziren 19 pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak. Horien artean zegoen Aratz Madariaga oriotarra. Hasieran, za-borrontziak erretzea leporatzen zioten, baina, irailaren 14an epaitu zutenean harriak botatzea egotzi zioten. Egun berean elkarretaratzea egin zen Orioko herriko plazan. Jendearen babes handia jaso duela esan du Madariagak.

@karkara.eus/orio/1441977412971



Kultura

Kide berrien bila dabil Salatxo Abesbatza

Ikasturte berriarekin entseguetarako elkartzen hasi da Salatxo Abesbatza. Irailaren hasieran ekin zioten ikasturte berriari. Taldekide berriak erakarri nahi dituzte abesbatzara, zenbait oriotarrek bertan parte hartzeko gogoia dutela baitakite. Horregatik, dei egiten diete herritarrei Salatxo familiara gehitzeko. Musika mintzaira ez da beharrezkoa, garrantzitsuena kantuan aritzeko gogoia dela diote. Astean bitan egiten dituzte entseguak, astelehenetan eta ostegunetan.

@karkara.eus/orio/1441271978283

Juneren Hegoak elkartearen aldeko kirol festa Karelana



@karkara.eus/aia/
1421666181528



Ganbara duzunari berrerabilpena emateko azoka



@karkara.eus/orio/
1442831118834



Tribu Horia, Urtzi Garmendiaren ikus-entzunezkoa



@karkara.eus/orio/
1442833666221



ZERBITZUAK**AZOKA**

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Pisua salgai Aristerra-zu-Aian. 70 metro karra-tu, ia berria. bi logela, komuna, egongela handia eta sukalde handia. Gara-jea eta trasteroa barne. 129.000 euro.

Tf: 628 271 211

■ Salarako altzaria, gere-ziondoaren egurrarekin egindako liburutegia. Neurriak 221,5 x 243,5 x 37,5 dira. Prezioa negoziagarria da. Harremanetan jartzeko deitu 649289154 telefonora.

■ Pisua salgai Abaromendin. 61 metro karratu eta 140 metro karratuko jardina. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. 637419729

■ Pisua salgai edo alokagai Orion, Kale Nagusian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Interesatuak deitu 661 679 691 telefono zenbakira -Paki-.

Alokairuan

■ Pisua alokagai epe luzerako. 3 logela eta komun bat 1.83 metro karratu, berrietua eta estreinatzeko. Tf: 617 602 117 (Nekane)

■ Logela alokagai -16 metro- etxebizitza berrian. Komun propioa gelatik kanpo eta 40 metroko terraza. Tf: 652 551 550

■ Logela alokagai. 100 metro karratu, leku onean dago kokatuta. Tf: 657 535 299

Lan eskaerak

■ Asteburuetarako lan

bila dagoen emakumea. Esperientzia helduen zainketan, baina edozein lan egiteko prestutasunarekin. Paperak ere badituz. Interes duenak deitu 663117579

■ Gizonezkoa prest base-rrian lan egiteko. Esperientzia daukat. Jose Azur. Tf: 674 123 293

■ Garbiketa lanak egiteko, zahar nahiz helduen zainketa eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume gaztea. Interesatuak deitu dezala 636 188 388 -Mayerling-.

■ Lan bila dabilen emakumea. Sukaldari titulua daukat, eta esperientzia jangelan eta zerbitzari lanetan; baita haurren zaintzan eta garbiketan. Interes duenak 695 914 242 zenbakira deitu dezala.

■ Lan bila nabil ume nahiz zaharrak zaintzen edo garbiketan -barnekoa edo kanpoko-. Interes duenak deitu telefono honetara: 634 920 471 -Maria Jose-

■ Esperientzia daukat heldu nahiz haurren zaintzan eta garbiketa lanetan. Azkenekoz baserri batean egin dut lan, hiru urtez. Interesatuak deitu diezadala 674123293 -Claudia Patricia Gimenez-

■ Ikasketaz ingeniari mekanikoa eta 30 urteko esperientzia soldadore lanetan. Gaztelera, Ukrainera, Errusiarra eta Polakoa hitz egiten dituz. Langilea naiz eta lan bila nabil. 674 946 663 edo

602 628 206 -Bohdan-

■ Asteburuetarako lan bila pertsona helduen zaintzan. Paperak araututa eta erreferentziekin. 663117579

■ Bertako emakumea lan bila. Portal eta ofizinen garbiketan esperientzia, adinekoen zaintzan titulua. Tf: 617112916

■ Neska oriotarra, umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota klase partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. Tl: 671743088. Ainhoa

■ Esperientzia eta erreferentzia dituen neska lan bila dabil. Haurren nahiz helduen zainketa, baita beste edozein lanerako prest ere. Paperak araututa. Tf: 664 681 908

■ Gizonezkoa lanerako prest. Baimen guztiak dituz, eskorga eta zubi-garabiarenak barne. Lan-arriskuen prebentzio kurtsoa eginda. Tf: 657 535 299

■ Arratsaldetan lana egiteko prest dagoen emakumea da. Etxeko lanak eta ume nahiz helduen zaintza. Interes duenak deitu dezala 653508251 telefonora.

Auto-partekatzea

■ Orio-Miramón teknologia parkea joan-etorritako autoa partekatzeko prest. 08:15ean Oriotik abiatu eta 13:30ean itzuli. Tf: 655 702 613.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	07:16 eta 19:40	01:00 eta 13:22	
02	08:02 eta 20:29	01:46 eta 14:10	
03	08:52 eta 21:24	02:34 eta 15:03	
04	09:51 eta 22:31	03:28 eta 16:04	
05	11:03 eta 23:54	04:32 eta 17:19	
06	12:28 eta ____	05:50 eta 18:43	
07	01:20 eta 13:46	07:12 eta 19:57	
08	02:26 eta 14:45	08:18 eta 20:52	
09	03:15 eta 15:29	09:07 eta 21:33	
10	03:54 eta 16:06	09:46 eta 22:08	
11	04:26 eta 16:39	10:21 eta 22:40	
12	04:57 eta 17:10	10:54 eta 23:11	
13	05:26 eta 17:39	11:25 eta 23:42	
14	05:55 eta 18:09	11:57 eta ____	
15	06:25 eta 18:40	00:13 eta 12:29	
16	06:55 eta 19:12	00:45 eta 13:03	
17	07:27 eta 19:47	01:18 eta 13:39	
18	08:04 eta 20:27	01:55 eta 14:19	
19	08:47 eta 21:18	02:37 eta 15:08	
20	09:44 eta 22:27	03:30 eta 16:11	
21	11:00 eta 23:52	04:38 eta 17:27	
22	12:25 eta ____	05:58 eta 18:46	
23	01:13 eta 13:39	07:13 eta 19:53	
24	02:27 eta 14:40	08:16 eta 20:50	
25	03:11 eta 14:32	08:11 eta 20:40	
26	02:59 eta 15:20	09:00 eta 21:26	
27	03:44 eta 16:06	09:47 eta 22:11	
28	04:28 eta 16:50	10:32 eta 22:55	
29	05:12 eta 17:35	11:18 eta 23:39	
30	05:56 eta 18:21	12:03 eta ____	
31	06:41 eta 19:09	00:23 eta 12:51	

ZAINZAKO BOTIKAK**URRIA:**

- 1ean, G. Artiñano
- 2an, Azaldegia
- 3 eta 4, Zulaika
- 5etik 9ra, Lasa
- 10 eta 11, Iriarte
- 12an, Zulaika
- 13an, G. Artiñano
- 14an, Azaldegia
- 15ean, Etxeberria
- 16an, Lasa
- 17 eta 18, Larrañaga
- 19tik 23ra, Lasa
- 24 eta 25, Mutiozabal
- 26an, Azaldegia
- 27an, Lasa
- 28an, Iriarte
- 29an, Larrañaga
- 30ean, Lasa
- 31n, Etxeberria

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8.

943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.

943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.

943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.

943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.

943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.

943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo

Enea. 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41

943 13 39 94 Zarautz

Kontraportadako argazkia

Juantxo Egañak ateratako argazkia da, 1991ko finalekoa, Xenpelar Dokumentazio Zentrotik lortutakoa



Taldean bizi den saguzahar bakartia

Maite Arroitauregi Aranburu da Mursego. Txeloa eta beste hamaika instrumentu jotzeaz gain, kantatu ere egiten du. Melodia sortu eta loop-ak eginda janzten du kantua, autogestio bidez konposatzen ditu abestiak bakarlari eibartarrak. Urriaren 30ean Orioko kultur etxean joko du, 22:30ean.

Aia

Laurgain auzoko sanmielak

- Irailaren 25ean, auzo afaria, 21:00etan. Afalostean erromeria.
- Irailaren 26an, 16:30ean Mus Txapelketa eta 23:00etan erromeria.
- Irailaren 29an, 10:30ean San Miel meza, hamaiketakoa eta herri kirolak.

Podologoa

- Urriaren 11n, Andatzako auzo eguna. 9:30ean diana, 10:30ean jolasak, 12:00etan herri kirolak. 13:00etan meza, 14:00etan auzoko kirolari nabarmenduei omenaldia, 14:30ean txekor jana eta 18:30ean erromeria.

Orio

Zinea

- Urriaren 13an, Gerrako Umeen Bilobak dokumentalaren proiektzioa, 19:00etan kultur etxean.

Bilerak

- Urriaren 14an, San Nikolas jaiak antolatzeko bilera, 19:00etan kultur etxean.

Erakusketak

- Irailaren 18tik urriaren 2ra, Jokin Miralles margolariaren pintura erakusketa, kultur etxean.
- Urriaren 19tik 27ra, Saharako Ahotsak erakusketa kultur etxean.

Musika

- Urriaren 30ean, Mursegoren kontzertua, 22:30ean kultur etxean.

Bingoa

- Asteazkenero, Bingoa zaharren babeslekuak antolatuta, 16:30ean, kultur etxean.

Katekesiaren ordutegia

- Urriak 5, 2. maila, 17:00etan.
- Urriak 7, 3. maila, 17:00etan.
- Urriak 7, 4. maila, 18:00etan.
- Urriak 8, 5. eta 6. maila, 17:00etan.
- Urriak 16, DBH1 eta 2, 20:00etan.

75 m²ko **PISUA SALGAI**
Aian, Santo Errekan kokatua

Prezioa: 165.000 euro
☎ 907 510 356

Pisua laguna ditu, sotoalde handia, espangela eta barazkela.
Honez gain, konunitate-lorategia eta kanpoko aparkaleku pribatuak.

EKILORE GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es

KAXAIO
PLADURRA ETA IGLTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak
pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com

☎ 656 777 574



GIPTZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 97

LAGUNTAILEAK:



Gipuzkoako Foru Alkandia



... kutxa

eta